

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

- **Zeintzuk dira gure bezeroak?**

Akademia hau nagusientzako zuzenduta dago. Hasieran gutxienez 60 urtetik gorakoentzat antolatuko genuke, bi taldeetan banatuz, adinaren arabera. 60-75 urte bitarteko pertsonak talde bat osatuko lukete eta 75-90+ urte bitartekoek berriz, beste bat. Erretiratutako pertsonak izango ziren gure bezero nabarmenenak, baina erretiratuta ez daudenak ere egon daitezke.

- **Zeintzuk dira bezeroen ezaugarriak?**

Akademian parte hartzeko eskatzen duguna ilusioa edukitzea eta gogotsu etortzea da. Egunero zerbait berria ikasi nahi dutenak, animatuta datozenak eta interesa dutenak ematen ditugun klaseetan, ongi etorriak izango dira, IMEME akademiara.